



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

**ORDENANTZA, LEHENTASUNEZ BIRGAITZEKO EREMUETAN ERAIKINAK
BIRGAITZEKO LAGUNTZENA, ESKU-HARTZE OROKORREKO PLAN ONARTU BAT
BADUTE
(NAO 71 zbk, 2020eko apirilak 2)**

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da arautzea Altsasuko Udalak ezarritako dirulaguntzak, etxebizitza eraikinetan birgaitze obra hauek sustatzeko:

- a) Eraikinaren ingurutzailerik osoan jarduketak egitea, energia eraginkortasuna hobetzeko.
- b) Eraikinaren ingurutzailerik osoan jarduketak egitea, energia eraginkortasuna hobetzeko, oztopo arkitektonikoak ezabatzearekin batera.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Laguntzak Altsasuko Udalak izendatzen dituen lehentasunezko birgaitze eremuetan dauden eraikinetan garatzen diren jarduketei soilik aplikatuko zaizkie, baldin eta esku-hartze orokorreko plan onartu bat badute eta antolamenduz kanpo ez badaude.

Jarduketak jabeen erkidegoak sustatu beharko ditu, eta ez dira aplikatuko jabeetako batek banaka sustatutako jarduketetan.

3. artikulua. Baldintza orokorrak.

Udal laguntzak jasotzeko aukera izanen dute etxebizitzarako erabiltzen diren eraikin guztiek, baldin eta antolamenduz kanpo ez badaude, Altsasuko Udalak esku-hartze orokorreko plan baten bidez izendatzen dituen lehentasunezko birgaitze eremuetan badaude eta Nafarroako Gobernuaren aldetik birgaitze babestuaren kalifikazioa lortu badute.

Udalaren laguntzak, proposatzen den birgaitze motaren arabera, honako hauek izanen dira:

- a) Eraikinaren ingurutzailerik osoan jarduketak egitea, energia eraginkortasuna hobetzeko. Obra gauzatzeko aurrekontuaren %4.
- b) Eraikinaren ingurutzailerik osoan jarduketak egitea, energia eraginkortasuna hobetzeko, oztopo arkitektonikoak ezabatzearekin batera. Obra gauzatzeko aurrekontuaren %4.

Laguntzak aurrekontu arruntean horretarako izendatutako partidaren kontura finantzatzeko dira, eta kreditua izateak baldintzatuko du laguntza ematea.

Eskatutako dirulaguntzen zenbatekoak aurrekontuko ekarpena gainditzen duenean, eskabideak ebatziko dira dokumentazio guztia erregistroan aurkezten den hurrenkerari jarraituz.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Udal laguntzak Nafarroako Gobernuak edo beste erakunde publiko batzuek ezarritako osagarri izanen dira. Eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzeko Nafarroako Gobernuak babestutako birgaitze kalifikazioa lortzea (oztopo arkitektonikoak ezabatuta edo gabe) ezinbesteko baldintza izanen da udal laguntzak eskuratu ahal izateko.

Jarduketa eta obra guztiak eraikina kokatuta dagoen lehentasunezko birgaitze eremurako onartutako esku-hartze orokorreko planean ezarritako zehaztapenak bete beharko dituzte.

Udalaren laguntza ekonomikoetatik kanpo gelditzen dira birgaitze babestuaren kalifikazioan Nafarroako Gobernuak babesgarrizat jotzen ez dituen jarduketak edo horien zati zehatzak.

4. artikulua. Jabeen erkidego onuradunak.

Laguntzen onuradunak izanen dira etxebizitzarako erabiltzen diren eraikin jabeen erkidegoak, baldin eta antolamenduz kanpo ez badaude, Altsasuko Udalak esku-hartze orokorreko plan baten bidez izendatzen dituen lehentasunezko birgaitze eremuetan badaude eta Nafarroako Gobernuaren aldetik birgaitze babestuaren kalifikazioa lortu badute.

Erkidego onuradunek berariaz eskatu beharko dute laguntza, dagokion dokumentazioa aurkeztuta, obrak amaitu ondoren; hala ere, obra-lizentziaren eskaerarekin batera, Altsasuko Udalari jakinarazi beharko diote obrak amaitu ondoren dirulaguntza eskatzeko asmorik duten.

5. artikulua. Laguntzen tramitazioa.

Altsasuko Udaleko Erregistroan izapidetuko dira laguntzak (edo indarrean dagoen legeriak aitortutako edozein erregistro ofizialetan), eta honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Obra-lizentziaren eskaerarekin batera, eta obrak hasi aurretik, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Altsasuko Udalaren dirulaguntzak eskatzeko asmoa dagoela adierazten duen idazkia.

- b) Obrak amaitu ondoren, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

–Obra-lizentzian Altsasuko Udalak ezarritako obra bukaera.

–Birgaitze babestuaren kalifikazioa, Nafarroako Gobernuak zigilatua.

–Altsasuko Udalak laguntza ekonomikoa ordaintzeko berariazko eskaera, hura kobratzeko kontuaren zenbakia adierazita.

Dokumentazioa berrikusirik eta Kontu-hartzaitzak gastua fiskalizatu ondotik hilabete bateko gehieneko epean, Alkatetzak ebazpena emanen du, dagokion laguntza emanaz. Laguntza hori aipatu kontuan ordainduko da.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Altsasuko Udalak laguntza ekonomikoaren ordainketa egingen du aurkeztutako obra likidazioaren obra gauzatzeko aurrekontuan oinarriturik. Jarduketaren zatiren bat ez babesgarritzat jotzen badu Nafarroako Gobernuak, zati horren obra gauzatzeko zenbatekoak ez du jasoko Altsasuko Udalaren laguntza ekonomikoa.